



Hiru desio

Emakume eta gizon bat oso pozik bizi ziren etxe zahartxo batean. Elkarrekin ondo pasatzen zuten, gainera lagun onak zituzten eta lasai bizitzeko adina diru ez zitzaien falta. Baina, hala ere, egonezin batek jaten zien barrena: zuten guztia izanda ere, inoiz ez zitzaien nahikoa iruditzen. Gauza gehiago behar zituzten beti: etxe hobeagoa, arropa apainagoa, lagun ederragoa, janari goxoagoa... Haien anbizioak bukaerarik ez zuen.

Gau batean, beheko suaren aurrean eserita zeuden lasai-lasai, norbera bere pentsamenduetan murgilduta. Halako batean, su hartatik txinparta txiki bat atera eta gela guztia zeharkatu zuen, airean arrasto urdin bat utziz. Eztanda baten ostean, emakume eder bat agertu zen, airean geldi-geldi finkatu zen, gela erdian. Emakume txiki hark irribarretsu begiratzen zien gizon eta emakume harrituei eta, bitartean, haren gorputzetik ateratzen zen arrosa usaina gela guztian berreiatu zen. Gure lagunak liluraturik zeuden emakume eder hari begira, eta erdi-zorabiatuak emakumetxoari zerion arrosa-lurrina arnastean.

Horrelako zerbait gertatu eta edozein beldurtzen da, baina gure bikotea berehala konturatu zen emakume irribarretsuak xamurtasunez begiratzen ziela eta argi ikusi zuten biek maitagarri bat zela. Orduan, haren ahots kantaria entzun zuten:

–Mendiko maitagarria naiz eta baso arteko kristalezko palazio batean bizi naiz. Ehun urtetan behin, pertsonen desioak betetzen ditut eta gaur izango da egun hori. Zuen hiru desio beteko ditut.

–Hiru desio diozu? Guk nahi ditugunak?

–Bai, baina kontu handia izan, ondo aukeratu behar dituzue zuen nahiak. Edozein desio esan orduko berehala beteko zaizue eta.

Senar eta emazte haien buruak martxan jarri ziren bat-batean, zer eskatu erabakitzeko:

Gizonaren buruan, biak bidaia handi batean irudikatu zituen, eta ia-ia bere pentsamenduan agertzen zena ahots gora esan zuen; baina berehala bururatu zitzaion hobe zela etxe eder baten jabe egitea. Geroxeago otu zitzaion nahikoa diru baldin bazuten horiek guztiak erosiko zituztela... Baina osasunik ez bazuten nola gozatu ondasun guzti haiek, edota ingurukoek sufritzen baldin bazuten...



Emakumearen pentsamenduen hariak ere antzeko bidea egin zuten: lanik egin gabe biziko ziren handik aurrera, bidaiatuz, nahi zituzten gauzez gozatuz...

Biek ala biek hainbeste gauza nahi zituzten baina ezin zuten ahoa ireki beldurrez, aukeratzeko zuten desioa ezin hobea izan behar zuen eta ondo pentsatutakoa. Eta horretan zeudela afaria egiteko ordua etorri eta sutondoan zebiltzan biak, isilik, erretzen ari ziren patatei begira-begira. Platerean jartzen hasi ziren beren patatatxoa eta emakumeak intziri bat botaz esan zuen:

–Ai, sikiera odolkitxo bat izango bagenu patata triste honi laguntzeko...

Guraria adierazi eta instantean bete zen: eltzearen ipurdian odolki eder bat ikusi zuten bat-batean. Haserretu ziren biak; haien amorrazioan, biraoka eta garrasika hasi ziren batak besteari kulpa botaz. Halako batean, gizonak esan zion emakumeari:

–Odolkia sudurretik zintzilik eraman beharko zenuke.

Eta hala gertatu zen! Emakumearen sudurretik zintzilik geratu zen odolkia orduantxe. Beraz, lehenengo bi desioak bete zitzaizkien eta zegoeneko gurari bakarria falta zen maitagarriaren esana kunplitzeko.

Gizonak adi-adi begiratu zion emakumearen aurpegiari, baina odolkiarengandik ezin zituen begiak urundu. Nola joango ziren kalera bada emakumeak odolki bat sudurretik zintzilik zuela? Zertarako urreak, diruak eta bidaiak emakumeak odolki bat eraman behar bazuen sudurrean beti? Hortik aurrera, ez zuten beste pentsamendurik izan; bukatu ziren gurariak, desioak eta nahiak...

Hirugarren desioa odolki hartatik libratzea izan zen, eta orduan konturatu ziren edozer gauzaren gaintik elkarri zioten maitasuna zegoela eta haien bizimoduak lehen bezalaxe jarraitu zuen, batzuetan hobeto eta besteetan okerrago.

Maitagarria ez zen gehiago etxe hartara itzuli, baina agian zuengana helduko da, kontuz zer eskatzen duzuen...

Itziar Zubizarreta.